

Foru Aldundiak eten egingo ditu egoitzetako erabiltzaileen paseoak COVID-19a dela eta alerta gorria duten udalerrietan

Momentuz, Aguraingo foru egoitzari besterik ez dio eragiten murrizketak

Senideek egoiliarrek bisitatzen jarraitu ahal izango dute egoitza-zentro guztietan

Gasteiz, 2020ko urriaren 30a. Arabako Foru Aldundiak adinekoentzako eta desgaituentzako egoitza-zentroetako erabiltzaileen bisitei eta ibilaldi terapeutikoei eutsiko die, baina aldi baterako etengo ditu egoiliarrek zentroetatik kanpora ateratzeko irteerak alerta gorrian dauden udalerrietan.

Egoiliarren irteerak eta bisitak arautzen dituzten neurrien aldaketa hori azken egunetan koronabirusak izan duen hedapenaren ondorioa da. Nolanahi ere, egoitza guztietan egin ahal izango dira bisitak, eta ibilaldiak mugatuko dira soilik baldin eta egoitza dagoen udalerriak 100.000 biztanleko 500 kasutik gorako intzidentzia tasa metatua gainditzen badu 14 egunetan, bat etorritz bost mila biztanletik gorako udalerriei aplikatzen zaien Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren COVID-19 semaforoarekin.

Une honetan, Agurainek soilik gainditzen du kutsatze kopuru hori; beraz, udalerririk horretan dagoen Sallurtegi mendeko adinekoentzako foru egoitzak bertan bizi direnen irteerak etengo ditu aldi baterako.

Gizarte Politiken Saileko foru diputatu Emilio Solak eman duen eta dagoeneko indarrean jarri den foru aginduaren arabera, ezingo dira irten foru titulartasuneko egoitzetan dauden adineko mendekoak eta desgaitasuna duten pertsonak, ezta titulartasun pribatuko hainbat zentroekin itundutako plazetan dauden erabiltzaile guztiak ere, baldin eta egoitza zentro horiek kolore gorria (muturreko arriskua) esleitu zaien udalerrietan badaude COVID-19 semaforoan, Gobernuak ezarritako datuen arabera.

Hala eta guztiz ere, Gizarte Politiken Sailak uste du beharrezkoa dela, batetik, egoiliarrek ahalik eta gehien babestea, eta, bestetik, familiarekin edo hurbileko pertsonekin harremanetan egotea. Hori dela eta, zentro guztietan mantentzen da senideen eta hurbilekoen egungo bisita erregimena.

Neurriak indarrean jarraituko du, harik eta COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisiaren baldintzak aldatzen diren arte.